

EUSKARA-PLANA DUTEN ENPRESEN ESTATISTIKA: LEGE-IZAERAKA ETA ESKUALDEKA

Lurralde Historikoa eta Eskualdea	Ekonomia Soziala ¹		Bestelako enpresa pribatuak ²		Bestelako erakundeak ³		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%

Araba								
Arabako Lautadak	1	0,71	4	2,86	2	1,43	7	5,00
Kantauri Arabarra	1	0,71	1	0,71	0	0	2	1,43
TOTALA:	2	1,43	5	3,57	2	1,43	9	6,43

Bizkaia								
Arratia Nerbioi	1	0,71	0	0	0	0	1	0,71
Bilbo Handia	3	2,14	11	7,86	19	13,57	33	23,57
Durungaldea	2	1,43	1	0,71	1	0,71	4	2,86
Gernika-Bermeo	1	0,71	0	0	1	0,71	2	1,43
Markina-Ondarroa	3	2,14	0	0	0	0	3	2,14
TOTALA:	10	7,14	12	8,57	21	15,00	43	30,71

Gipuzkoa								
Deba Beherea	4	2,86	4	2,86	1	0,71	9	6,43
Deba Garaia	23	16,43	9	6,43	0	0	32	22,86
Donostialdea	5	3,57	17	12,14	11	7,86	33	23,57
Goierri	3	2,14	5	3,57	0	0	8	5,71
Tolosaldea	1	0,71	3	2,14	4	2,86	4	2,86
Urola-Kostaldea	1	0,71	1	0,71	0	0	2	1,43
TOTALA:	37	26,43	39	27,86	12	8,57	88	62,86

GUZTIRA:	49	35,00	56	40,00	35	25,00	140	100,00
-----------------	-----------	--------------	-----------	--------------	-----------	--------------	------------	---------------


1.- Kooperatiba elkarteak

2.- SA, SL., SLU...

3.- Bestelakoak (elkarteak, fundazioak...)

Datu hauek azken lau urteetako diru-laguntza deialdietatik atera ditugu (2002, 2003, 2004 eta 2005etik).

Enpresa plandunen azken urteotako bilakaera ondoko taulan ikus daiteke:



1998 eta 2002ko enpresa-kopuruak *Kooperatibak eta euskara*¹ liburuan 117-118. orrietan agertzen diren tauletatik hartu dira.

Edozein modutan ere, zenbaki hauek interpretatzean ez da ahaztu behar badaudela taulan jasotzen direnetatik aparte, bestelako planak edo behintzat euskararen erabilera areagotzearen aldeko hainbat ekimen indarrean duten beste enpresa batzuk. Bereziki garrantzitsuak dira kopuruz gainera, gehienetan negozio-bolumenez eta langile-kopuruz aski txikiak izan arren, txikizkako salmentan parte hartzen dutenak: ostalaritza arlokoak, denda, ordezkariak eta abar. Hainbat udalek eta mankomunitatek ere era horretako negozioetan euskararen erabilera bultzatzeko programak indarrean dituzte. Azkenik, administrazioa eta ikastetxe pribatuak ez dira kontuan hartu, ezta ere sorkuntzatik bertatik euskara hutsez edo nagusiki euskaraz funtzionatzen duten enpresak, gehienbat euskarazko kultura-munduko enpresa 'modernoak'.

Hitz batean, Autonomia Erkidegoko hainbat enpresatan martxan dira dagoeneko euskara-planak. Enpresa hauek, jakina, ez dira denak izaera juridiko berdinekoak: batzuk kooperatiba elkarteak dira; beste batzuk, aldiz, beste izaera bateko enpresa pribatuak; eta badaude, azkenik, elkarte, fundazio edo antzekoak ere tartean. Denbora-epe honetan guztian zehar, era honetako planak dituzten enpresa gehienak Gipuzkoan daudela argi erakusten digute datuek. Esanguratsua da, gainera, Deba Garaia eskualdean ematen den kooperatiba-elkarteen pilaketa nabarmena. Bizkaia aldean, ordea, Bilbo inguruan daude enpresa gehienak eta, Gipuzkoan ez bezala, elkarte, fundazio eta antzekoak dira nagusi. Arabaren kasuan, euskara-plana duten enpresak ez dira asko eta daudenak hiri inguruan pilatzen dira. Gehiengoa, kasu honetan, bestelako enpresa pribatuak dira.

2006-01-25

¹ UNANUE, Amagoia & INTXAUSTI, Nahia (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Lanki Ikertegia. Mondragon Unibertsitatea / Emun Kooperatiba Elkarte, Eskoriatza.